

Mahainguru hartan erantzun gabeko itaunak (VII)

Euskararen plangintza

...Itaunak gero eta gehiago datozela esaten digute. Gaiak sortzen duen mina agertzen du horrek agian. Zoritarrez edo zorionez hainbat gai interesgarri daukagu, gure asteroko mahainguru honetara ekartzeko. Baina, dirudie-nez, oraindik behin baino gehiagotan harrotu beharko dugu euskararen egoera eta etorki-zuna. Entzun dezagun hurrengo itauna. Gabon!

— Gabon! Euskarari buruzko politikaz hitzegitean eta plangintza-ren helburuak ipintzean, sarritan entzun ohi da utopia hitza. Horrelako zerbait samatu dut mahainguru horretan ere: Euskal Herria euskalduntzea eskatzea utopiatzat jotzen da. Eta hori, errealisismo politikoa izan ezan nonbait. Nik neuk aitortu behar-rea daukat, Euskal Herri euskal-duneari bakarrik dudala itxaropena; euskalduna ez baldin bada ez bait da Euskal Herria izango. Baina hori aparte...

— Zure esperantzak kontatu barik, egin ezazu zeure itauna. Beste mahaingururen batean behar bada edukiko duzu zeure iriz-tzia emateko aukera. Orain itauna, mesedez!

— Bai; hitz-jokoak aparte, nik neuk benetan uste dut Euskal Herria euskaldundu daitekeela, politika eta plangintza egokiak eragiten badira, eta batez ere herri honen dinamismoaz baliatzen baldin bagara. Eta nik bezala milaka euskaldun askok gauza bera sinesten dutela uste dut, eta horrexegatik ari direla borrokan eta lanean. Baina nik galdetu egin nahi diet mahaikoiei; ea zer dioten: utopia hutsa al da zuen-tzat Euskal Herriaren berreuskal-duntzea? Amets zoro baten atzetik ote dabilta euskararen alde borrokan, mobilizazioan eta mili-tantzian dihardutenak? Lilura hutsaren pean ote daude beren patrikatik dirua eta lana ipintzen duten hainbat gizon eta emakume, euskara aurrera ateratze-ko?

* * *

Oso hitz garrantzizkoak aipatu dira galdera horretan, gauro gure gaia, euskararen plangintza-rena, ulertzeko: errealisismoa, utopia, militantzia...

Eta esan beharra dago, agin-tean daudenek oso erraz gaitzetsi ohi dituztela utopikatza eta irrealizatza beren kritikariak eta salatzaileak, haien programak eta plangintzak helburuetan motz eta fruituetan eskas gelditzen di-rela eta. Etsaiak —edo etsaitzat hartzen direnak— deskalifikatze-ko modu oso ezaguna da hori. Jakina, errealisismoa, idealis-moa, utopia, baikortasuna ala ez-kortasuna: joera horiek ez dira metrotan, kilotan eta kantitate fi-sikotan neurtzen; kalifikazio mo-ralerako kontzeptuak dira... edota deskalifikazio moralerako, irain gisa erabiltzen direnean, eta ez arrazoizko elkarrietzeta eta ezta-bidarako. Elkarrietzeta eta ezta-baida, berriz, datu objektiboen gain egiten denean bakarrik izango da emankora.

Hemen nekez hasi gaitzek euskaldun bakoitzak dugun errealisismoa, idealismoa, ames-keria eta utopia kalifikatzen. Baina itaungileari nolabait erantzuteko, hitz horien apzian ezkatatu ohi

den tranpa agerian ipini eta sa-latu behar dela uste dut. Tranpa ugari bait dago ezkutaturik ho-rien erabileran: gehienetan be-hintzat.

Zertan datza euskararen plangintzari buruzko errealisismoa? Gure hizkuntzak bizi edo jasaten duen egoera alde guztietatik eta ahal den sakonkien aztertzean? Hori beharrezkoa da, jakina; baina plangintzaren lehen urratsa besterik ez da hori. Eta errealis-moak plangintzaren urrats eta etapa guztietan agertu behar du. Plangintzaren abiaburu errealista besterik ez da egoeraren azter-keta zientifikoa. Horren ondoren, ordea, plangintza aurrera erama-teko helpeak jarri behar dira (baliabide legal-instituzionalak, teknikoak, pertsonalak, finantzia-riak), helburuak ipini den puntura iristeko. Abiaburuaren (egoeraren) eta helburuaren (etorkizunaren) arteko bidea egiteko helpe egokiak ipintzean datza, azken batez, errealis-moa. Euskararen plangintzaren helbu-rua, berriz, ez da horretarako helpe edo baliabideetatik bakar-rik juzgatzen, eta bai helburua-ren beraren analisi sakonetik: helburu hori ote den benetan euskararen normalkuntzari dago-kiona, horren testuinguru eta baldintza guztiak, horren irau-nkortasuna —ze azken helburuak iraukorra izan behar du berez—.

Errealismoa egoeraren anali-sian bakarrik ez dagoen legez, irrealismoa edo utopia ere ez dago helburuan bakarrik. Histo-riaren, soziologiaren eta edono-lako azterketa zientifikoren ara-bera, inon —inolako leku jakinetan— gertatu edo gertatzen ez den zerbait gertatzea itxaro izatea da utopia. Orduan —eta euskararen normalkuntzarako plangintzari dagokionez— «elebi-tasun osoa» da, hain zuzen utopia. Izan ere, Eusko Jaurlari-tzako Euskararen Aholku-Batzordearen Euskararen politi-karako oinarriak liburuskari (1983), politika horren helburu-tzat «elebitasun osoa» ipini on-doren, honela dio 19. orrialdean: «...Komeni da honako hau ondo gogoan hartzea: inolako hizkuntz zapalkearik izan ez duten herrietan ere ez da elebitasun oso-rik lortu (agian lortu nahi izan ere ez). Euskal Herrian lortu nahi litzatekeen helburua ezar-tzerakoan ez litzateke dato hori ahaztu behar». Hizkuntzaren —euskararen— zapalketa egon denean eta orain dirauenean, areago, esango genuke.

Irrealismo utopikoa gerta dai-teke, gertatu, euskararen egoer-aren eta ibileraren azterketa egi-tean, eta, baikortasun handiegiz, diren baino hobek eritiz horiei. Halaber, irrealismo utopikoa da —boluntarismoa deritzana— hel-pide edo baliabide egokiak ipini gabe helburua lortu nahi izatea. Alde horretatik zera esango nuke: irrealismo utopikoa eta boluntarismoa dela euskararen normalkuntza lortzea oraingo egoera legal eta instituzionalaren gainean. Azkenik, irrealismo utopi-koa da, ez bakarrik arrazional-tasun bidezko baten arabera inola ere iritsiko ez diren helmu-gak eta helburuak ipintzea, eta bai aldatu eta konpondu nahi

den egoeraren irtenbidetzat, inola ere irtenbide iraukorra izango ez den helburua bilatzea. Elebitasuna inola ere izango ez-bada euskararen normalkuntza-rako irtenbide iraukorra, utopia eta ameskeria da horrelako helburuarekin jokatzeta eta horre-tarako plangintza eta politika egitea.

Errealismoaren eta irrealis-moaren tartean, ordea, idealis-moa dago. Euskararen plangintz-ari gagozkiolarik, horren egoera «anormaletik» horren etorkizun «normalera» igaro-tzeko egiten den plangintza. Etorkizun berri horretan «amets egitea» beharrezkoa da; egoer-aren eta baliabideen analiariaren ondoriozko ametsa, jakina. Euskararen politika normaltzaileak nahitaezkoa du, berezkoa eta funtsezkoa, gure hizkuntzaren etorkizun berri horri marraztea eta iruditzea: ametsa, aldez aurretik. Horixe besterik ez dugu adierazten idealismoa esaten du-gunean. Irudimenaren kontua da, azken batez; baina ez irudi-men hutsarena. Idealismorik ga-beko errealisimorik ez dago, errealtatea bera aldatkorra denez eta egoera hori aldatu nahi de-nean. Bereziki balio du horrek euskararen normalkuntzari eta horretarako plangintza eta politi-kari bagagokitzeta.

Idealismoa eta errealisismoa lo-




Alfredo Bikondoaren ilustrazioa.

etzen dituen soka, berriz, azter-keta, plangintza, programa eta aurrekontu guztiekin batera, mi-litantzia da. Idealismoa eta mili-tantzia erabat loturik doaz elka-

rrekin. Eta denok dakigu zein garrantzizkoak diren bi eragile horiek euskararen normalkuntza eta berreskuperenerako...

Paulo AGIRREBALTZATEGI



Sosak su hartu eta 120 auto bata bestearen kontra

Britania Handiko Northamptonshire autopistan ehunda hogei autok egin zuten bata besteren kontra. Ondorioz zauritu asko, horietarik bi haundizki. Kamioi bat sosaz beteta: nola edo hala lurrean barreatu eta suak hartu. Argazkian kerik eta lainorik ikusten ez bada ere, suaren ondotik sortu zen kea izan zen kausa autoek autoen kontra egiteko. Atzokoan, EGINen, berri honen berri ematen zen, halere halakoxe argazki dotorea denez, bihoga hionelakoez gustatzen direnen asegarri.